

Amasa-Villabonana, 2021eko maiatzaren 29an.

Beatriz Unzue Amasa-Villabonako alkatearen eta **Iker Urruzola** Zizurkilgo alkatearen hitzartzea, UEMAren batzar nagusian, bi udalak Udalerri Euskaldunen Mankomunitateko kide izendatu ostean.

AMASA-VILLABONA eta ZIZURKIL

Amasa, Ama, Aita, Aitorren hizkuntz zaharra, Arnasa,

Baldintza, Bizitza, Bizipoza, Babes

Debekuak, Dantza, Duintasuna, Deabru

Euskara, Euskararen Herria, Euskal Herria, Eskertza, Eraitza

Funtzeskoa, Funtsa, Fauna, Fabula, Fabrika, Fede

Gurea, Garena, Gorputza, Guztia, Garazi

Herria, Harria, Hamaika, Haitzurdin

Iraultza, Ikusi, Ikasi, Irakatsi

Jarioa, Jabetza, Jalgi, Jakin, Jakin-min

Kafea, Kaiku, kaikua, Kalapita, Katramila, kontakatilu, Kamarada

Lagin, Lurralde, Labore, Laborantza, Liburu

Maitasun, Malkar, Min, Mutu, Magal,

Nafarroa, Nabar, Nagusi, Nazio, Negar, Nini,

Ohore, Ohe, Oihu, Oihan,

Pilota, Palindromo, Paraxuta, Piztu, Poztu, Paz

Requiem, Ramadan, Radar, Ritual, Robot

Sehaska, Sustrai, Sakon, Sormen, Sinismen

Tinko, Talka, Talo, Tratu, Tankera, Tankeray

UEMA, Udal, Udaberri, Ugari

Villabona

Xarma, Xume, Xare, Xarmant,

Zubia, Zirarra, Zuztartu, Zori, Zizurkil

Atik Zra, Amasatik Zizurkilera, Hitz tegiaren osotasunera. Euskara ezpainetara.

Amasa-Villabona eta Zizurkil Euskarak ere batzen gaitu eta gure ametsak egi bilakatzeko bidean jarriko gara. Arnasgune izaten jarraitu nahi dugu.

1891. urtean Pedro Maria Otaño bertsolariak, AMETS BAT bertso sortatik, bertso bat berreskuratu nahi izan dugu, guzti honen laburpen irudi.

Ni jaio nintzan Euskal lurreko

leku pozgarri abetan,

eta euskera irentsi nuben

lenbiziko arnasetan,

amak siaskan nedukanian

edo bere besuetan,

kontu politak esanaz beti

kantatuaz batzubetan

geren aitonak moldatutako

itz neurtu ta bertsuetan.

Milesker guztioi UEMAkide izatea onartzeagatik. Ohore bat Amasa, Villabona eta Zizurkilgo herrientzat.